

Galdera

Blue Monday: nola eman daiteke euskaraz? Egokia da **Astelehen Urdina**?

Erantzuna

Astelehen goibela izan daiteke, gure ustez, itzulpen egoki bat.

1/ *Blue Monday* ustez urteko egunik tristeena, etsigarriena eta hitsena bide da Ipar Hemisferioan. Kontzeptua berri xamarra da, 2005ekoa, Sky Travel bidaia-agentziak “ekuazio” bat erabiliz helburu komertzialez sortu zuena. Ingelesez, *Blue Monday* izena eman zioten **blue** hitzaren esanahi bi erabilita:

- kolore urdina
- tristea, etsigarria

Gainera, ez da ahaztu behar bidaien munduan urdin kolorea erabiltzen dela hegaldiak eta hondartza paradisiako eguzkitsuak irudikatzeke.

2/ Jakina: euskaraz ez dugu tristura kolore urdinarekin lotzen –grisarekin¹ edo beltzarekin baizik–, eta antzera gertatzen da inguruko beste hizkuntza batzuetan ere. Horregatik, inguruko erdaretan, gehienetan ingelesez erabiltzen dute kontzeptua, sarritan ondoan itzulpen argigarri bat duela. Wikipedian, adibidez:

- (es) Blue Monday (*lunes deprimente/triste*)
- (fr) Blue Monday (*lundi déprimé*)
- (it) Blue Monday (*lunedì triste*)
- (nl) Blue Monday (*deprimandaag*)
- (gl) Blue Monday (*luns triste*)
- (ca) Blue Monday (*dilluns trist*)

3/ Euskaraz ere berdin jokatu genezake: Blue Monday erabili, edo itzulpen argigarria eta ez literala egin: izan ere, **Astelehen Urdinak** inondik inora ez dizkigu gogora ekartzen ingelezkoak dituen denotazio eta konnotazioak.

Itzulpen argigarria egiteko orduan, badugu euskaraz hitz bat kolorea eta tristura bateratzen dituen: **goibel**. Gure iritzian, hori bera erabil genezake itzulpena egiteko orduan: **Astelehen Goibela**. Halaxe erabili dute, esate baterako, wikipedian edo artikulu honetan: <https://etakitto.eus/iritzia/astelehen-goibela-imanol-magro.html>

¹ Euskaraz, **urdina** erabiltzen da, grisaren ondoan, ileen koloreaz aritzeko: zaldi urdinak, ardi urdinak, burua ile urdinez, bibote urdina...

